

Balorezko proposamena

Gure enpresa Sarrerapp deitzen da eta proiektu honen bidez pertsonak sarrera erosketarekin duten arazoa konpontzea lortu nahi dugu. Modu horretan, diskoteketako bezeroek sarrerak modu eroso eta errazean erostea lortuko dugu.

Azken urte hauetan diskoteketara joaten den pertsona kopurua handitu eta honekin batera sarrera salmenten eskaera asko igo da. Igoera honek sarreren salmenta zaildu du eta organizazio arazo larri bat dagoela antzeman dugu.

Alde batetik gure bezeroen (diskotekak) kontsumitzaileek dituzten arazoak ditugu.

Gaur egun sarrerak saltzeko erabiltzen den metodoa Harreman Publikoko Pertsonen (HHPP) bidez da, gure ustez hau da arazoaren oinarria metodo hau zaharkituta dagoelako. Erosleak HHPP-en kontaktua izan behar du sarrerak lortu ahal izateko eta hori salmenten lehenengo oztopoa da, kontaktu hori ez izatekotan erosketa prozesua oso zaila bihurtzen delako. Honekin batera, saltzailearekin geratzea denbora eskatzen du eta erosketa prozesua luzatzen da. Hurrengo oztopoa erosten diren eta erabiltzen ez diren sarrerak dira: batzuetan jendeak sarrerak erosten dituzte baina gero ez dira bertara joaten. Diskotekak ez dituzte itzulketak onartzen, beraz, arazo honi aurre egiteko, gure aplikazioaren bidez erosten diren eta erabiliko ez diren sarrerak, epe konkretu batean itzuli ahal izango dira beste pertsona batek eros dezan.

Beste aldetik, gure bezeroek (diskotekak) dituzten arazoak ditugu.

Erabiltzen duten salmenta metodoa zaharkituta gelditzen ari da, gaur egun enpresek egiten dituzten ia prozesu guztiak informatizatuta daudelako. Gure zerbitzuak salmentak aplikazio baten bidez egiteko aukera ematen du. Metodo honek beste arazo batzuk konpontzen ditu: papera eta tintaren erabilpena, HHPP-ek dituzten lan baldintza txarrak, sarreren faltsifikazioa eta erosleek sarrerak lortzeko zailtasuna.

Laburbilduz, gure proiektua bi aldeetako arazoak konpontzen ditu eta hori ez ezik, onurak dakartza. Ideia berriztatzailea, beharrezkoa kontsumitzaileen onura sustatzeko eta ekonomikoki eraginkorra.

